



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
lagunkoia
Donostia/San Sebastián amigable

Donostia Lagunkoia topaketa

2023ko martxoaren 23a, osteguna
Donostiako Udalbatza Aretoan, 10:00etatik 12:00etara.



Dokumentu hau

Dokumentu honen helburua da 2023ko martxoaren 23an Donostiako Udaleko Udalbatza Aretoan egindako Donostia Lagunkoia Topaketaren elementuak, uneak eta gako nagusiak jasotzea.

Topaketa eta berrelkartze oso hunkigarria izan zen, azken 10 urteetako uneren batean Donostia Lagunkoiaren parte izan diren eta/edo diren hiriko 84 pertsona protagonista bildu zituen, hain zuzen ere beren aztarna eta etorkizunerako arrastoa utzi nahi izan dutenak.

Dokumentua errazago irakurtzeko, honela dago antolatuta:

- Topaketa eta horren helburuak: zertarako?
- Protagonistak: norekin?
- Hiru une izan ditu topaketak:
 - Lehen unea: historia eta lurralde lagunkoia
 - Bigarren unea: Donostia Lagunkoiaren aztarnak hirian
 - Hirugarren unea: diseinatzeke dagoen etorkizuna
- Esker onak

Azkenik, adierazi behar dugu saioan ateratako argazkiekin eta bideoarekin osatzen dela kontakizun hau, eta horren bidez bisualki dokumentatu direla topaketan protagonista izan diren pertsonak, uneak eta emozioak.

Topaketa eta helburuak

2023ko ekainean, 10 urte beteko dira Bulebarrean Donostia Lagunkoia

ekimenaren lehenengo topaketa egin zenetik; une garrantzitsua izan zen proiektuaren historian, eta Donostia Lagunkoia izatea nahi genuenaren oinarriak eta haren lehen ibilbide-orria ezarri ziren.

Gaur, 10 urte geroago, urteurrena aprobetxatu dugu urte hauetan Donostia Lagunkoia Talde Eragilean parte hartu duten pertsonen arteko topaketa bat egiteko. Hau da, beren inplikazioarekin egun Donostia Lagunkoia proiektua den bezalakoa bihurtzen lagundu duten pertsonak. Horixe izan da topaketaren lehen helburua: berriz elkar ikustea, ospatzea eta elkar ospatzea.

Berriro elkar ikusi dugula aprobetxatuz, Donostia Lagunkoia denbora honetan utzi duen aztarnari buruz hitz egin eta hori partekatu nahi izan dugu, hain zuzen ere ekimenaren helburu, balio eta egiteko moduekin lurralde fisiko eta erlazional batean uzten ari den emaitzak zehaztuz, nahi izan arren, oraindik egin ezin izan duguna ahaztu gabe. Horixe izan da topaketaren bigarren helburua: Donostia Lagunkoia azterna eta eragina islatuta uztea.

Amaitzeko, hirugarren une batean, elkarrekin amets egin eta gogoeta egin dugu, anbizio handiarekin, neurri handi batean, Donostia Lagunkoia adin guztietarako etorkizunean utzi nahi duen aztarnari buruz. Izan ere, etorkizuna orain da eta guztioi interpelatzen gaitu. Begiratu dezagun leihotik, eta ekar dezagun nahi dugun etorkizuna une honetara: datozen 10 urtetan, Donostia Lagunkoia ekimenak zer aztarna uztea nahi dugu? Zein esparrutan nabaritu beharko litzateke? Topaketaren mugari bat izan da hau: bildutako 84 pertsonen pentsamendu kolektiboa eragitea eta aprobetxatzea, Donostia Lagunkoia hurrengo urratsen lehen zirriborroak marrazteko, bai orainaldirako, bai etorkizunerako.

Eta onena: goizean maitasunez eta emozioz beteta egon da topaketa. Irribarreak, besarkadak, ilusioa eta poza Donostia Lagunkoia inguruan berriro elkar ikusteagatik eta elkartzeagatik.

Protagonistak

86 pertsona –58 emakume eta 28 gizon– hamar urte hauetako uneren batean Donostia Lagunkoia talde eragileko kide izan direnak edo oraindik kide direnak, eta lehen aldiz gonbidatutako beste pertsona batzuk, proiektua bertatik bertara ezagutu eta sentitu dezaten.

17 lan-mahaitan antolatuta, gaur egun Talde Eragilea osatzen duten pertsonak lagunduta, kafea, elkarrizketa eta hausnarketa partekatu ditugu adin guztietarako hiri adiskidetsu baten inguruan.

Eskerrik asko topaketari zentzua eman dioten guztiei. Hauek dira haien izen-abizenak:

Adriana Martínez. Ainara Tomasena. Ainhoa Arrillaga. Ainhoa Becerra. Aintzane Garmendia. Aitziber San Román. Alex Mitxelena. Alicia Ardanaz. Alicia Figueroa. Almudena Esteberena. Amaia Agirreolea. Amaia Malet. Angel Garay. Bakarne Etxeberria. Beatriz Sauce. Begoña Arrizabalaga. Begoña Calleja. Carmen García Viscarret. Carmen Urretabizkaia. David Malagón. Elena del Barrio. Elena Zaldua. Eneko Goia. Espe Arrizabalaga. Estibaliz Goienetxea. Eva Salaberria. Gaizka Euba. Iciar Montejo. Iker Mujika. Inma Sánchez. Iñaki Aristondo. Iñaki Gurrutxaga. Iñaki Maiza. Iñaki Miguel. Iñaki Sagastume. Iñigo Munilla. Itsaso Fernández. Izaskun Egia. Jesús María Zaldua. José Manuel Susperregi. José Ramón Arriaran. Juan Luis Gorriti. Juanjo Goñi. Judith Moreno. Judith Ubarrechena. Julen Arregi. Julia Arrieta. Laura Martin. Luis Goenaga. Lurdes Ubetagoiena. Mafalda Saloio. Maialen Sánchez. Maider Azurmendi. Maider González. Maite Pozo. Manolo Gómez. María Fernández. María Jesús Idoeta. Maribel Pizarro. Marijo Goñi. Marina Retegi. Marisa Ortigosa. Marivi Osoro. Martin Auzmendi. Miguel de la Cruz. Mikel Agirrezabal. Mikel Cortés. Miren Arbelaitz. Nando Piñeiro. Nerea Amenabar. Norma Andrade. Pablo García Magriña. Paloma Martínez Goñi. Patxi Amutxastegi. Paula Amuchastegi. Paula Córdova. Pilar Romea. Pilar Samperio. Pili Perea. Puy Barral. Rakel Barroso. Sandra Hernández. Santiago Larburu. Silvia Urra. Sorkunde Jaca. Xabier Otaegi. Zorione Aierbe.

Topaketaren uneak

Topaketak 3 une bereizi izan ditu:

1. Donostia Lagunkoiak «konkistatutako» historia eta lurraldea
2. Donostia Lagunkoiak hirian utzi –ala utzi ez– dituen aztarnak.
3. Etorbizuna: Donostia Lagunkoiak hirian zein aztarna uztea nahi dugun

Gainera, bi elementu gidarik lotu dituzten goizeko uneak: Donostia Lagunkoiaren ahotsak eta musikak.

Donostia Lagunkoiaren ahotsak ongietorria eman digu, lagundu digu eta gidatu gaitu topaketaren hainbat unetan. Donostia Lagunkoia oso presente egon da, lehen pertsonan, parte-hartzaile bakoitzarekin sositutasunez konektatuz –*Gogoan al duzu begiak ixteko eta Donostia Lagunkoiaren atzean 3 kontzepturekin konektatzeko ariketa? Zer soinuz zuten hiru kontzeptu horiek?*–

Musikak hasieratik amaierara besarkatu gaitu, uneak lotu ditu eta pertsonak eta taldea beren emozio eta gogoetetan bildu ditu.

Jarraian, une bakoitzeko xehetasunen zirriborro bat egin dugu.

Lehen unea: Lagunkoiaren historia eta lurraldea

Topaketan zehar, metafora bisual eta sinboliko batean oinarritu gara: lagunkoia lurraldean.

Lurralde hori presente egon da aretoaren erdian, eta hauxe ekarri digu gogora: «Donostia Lagunkoia lurralde fisikoa eta harremanetakoa da, edukiak lantzen ditu eta harremanak sortzen ditu, Donostia bizi, partekatu eta lagundutako hiria izan dadin; adin guztietarako hiria.

Duela 10 urte elkarrekin marrazten hasi ginen lurralde bat da, leku bat, kale bat, plaza bat, auzo bat, behatzeko leiho bat, hausnartzeko espazio bat, aztertze eta jarduteko espazio bat; Lagunkoia pertsonak gara, erakundeak, ahotsak, begiradak, gurutzatzeak, nahasketak, arkitektura biziak. Lagunkoia pertsonak, erakundeak, ahotsak, begiradak, gurutzeak, nahasketak, arkitektura biziak gara. Gure mapa afektiboak osatzen dituzten geografia fisikoan eta giza geografian kolektiboki bizi dugun lurraldea gara».

Hori oinarri gisa hartuta, Donostia Lagunkoiaren koordinazioaren izenean, Eva Salaberriak labur-labur gogorarazi ditu ekimenaren bizi-historiako mugarri garrantzitsu batzuk, bai eta proiektuaren bereizgarri diren eta nortasun propioa ematen



dioten balio eta elementu ukiezinenak ere. **Hitz horiekin, Lagunkoia lurraldearen edukiak eta egiteko moduak ikusarazi ahal izan ditugu.**

Eta pertsona bakoitzak Lagunkoia lurraldera gehitu du etxetik ekarri duen eta proiektu kolektibo honekin nolabait lotzen duen objektua.

Elementuz elementu, elkarrekin aberastu dugu Lagunkoia lurraldea.

Bigarren unea: Donostia Lagunkoiaren aztarnak.

Zein esparrutan ari da Donostia Lagunkoia aztarna uzten? Zein esparrutan ez du utzi oraindik aztarnarik?

Sarritan, Donostia Lagunkoiak hirian eta bertan bizi diren pertsonen egunerokotasunean duen **eraginari buruz galdetu dugu Talde Eragilean.** Eta horri buruz hausnartu dugu, Donostia Lagunkoiaren ibilbide eta lan zehatzari perspektibaz begiratuz eta hori sistematizatzen saiatuz.

Horrela, Donostia Lagunkoiaren 2 begirada propioak artikulatzea ahalbidetzen duen **esparru bat sortu dugu:**

- Zahartzeak eta adin guztietarako hiri baterantz aurrera egiteak planteatzen dituen




erronketan zentratzen den begirada estrategikoa;

- sareko proiektu eta ekimen zehatzak garatzen dituen begirada operatiboa, lan-hipotesiak, ideiak, egiteko moduak, aliantzak praktikara eramateko.

Are gehiago, bi ikuspegiak lotzeko asmoa: maila operatiboan sortzen diren ikaskuntzak talde eragilearekin partekatzen dira, eta horrek ikuspegi estrategikoa elikatzeko balio du. Era berean, ikuspegi strategikotik, proiektu mailan garatu beharreko hipotesi eta planteamendu berriak ondorioztatzen dira.

Honako grafiko honetan islatzen da esparru hori:



Hausnarketa kontzeptualago horri laguntzeko, bigarren une honetan hainbat pertsonak honako galdera honen inguruan izandako esperientziak eta bizipenak ezagutu nahi izan dira:

«Zuk, zure jarduera-eremu zehatzean (antolaketa, gai-arloa, ekosistema, auzoa, adineko pertsona), zer bi alderditan sentitzen duzu Donostia Lagunkoia arrastoa uzten ari dela? Eta zer alderditan uste duzu ez duela oraindik arrastorik utzi?»

Horretarako, **persona hauen ahotsak** txertatu ditugu Lagunkoia lurraldean:

- Antolatzailea – Udala: Eneko Goia, Donostiako alkatea
- Hiri-plangintza: Paula Amutxastegi, hiriko hiri-antolamenduko plan orokor berria idazten ari den taldekoa.
- Ekosistema: Maribel Pizarro, Gipuzkoako Itxaropen Telefonoaren zuzendaria.

- Auzoa – Egia: David Malagón, Berriztu elkartekoa
- Adineko pertsona: Begoña Arrizabalaga, Nagusilan elkartekoa eta Donostia Lagunkoia talde eragileko kidea.

Bakoitza bere lekutik eta ikuspegitik, Donostia Lagunkoia lurraldean uzten ari den aztarnei ikuspegiak eta ñabardurak gehituz eta gehituz joan dira, baita oraindik ikusten ez diren aztarnak identifikatuz ere.



Hirugarren unea: diseinatzeke dagoen etorkizuna

Leihotik begiratzeko eta zer hautematen eta sentitzen dugun ikusteko artea gehituta, une honetan gure hiriarentzat nahi dugun etorkizuna deitu dugu: **datozen 10 urtetan, Donostia Lagunkoia zer azterna uztea nahi dugu? Zein esparrutan nabaritu beharko litzateke?**

Galdera horiei erantzuteko, gogoeta pertsonala eta taldekoa egin dugu. Eta, ondoren, taldean indar handiena hartzen joan diren ideien izenburuak taldean partekatu ditugu.

Emitza gisa, Donostia Lagunkoia epe ertain eta luzean uztea nahi ditugun aztarnak identifikatu ditugu.

Askotariko aztarnak dira.

HIRI
ZAINZAILEA

EKITATE
DIGITALA

GIZARTE
KOHESIOA

HERRITARRAK ETA
GUZTION ONERAKO
EKARPENA

BELAUNALDI
ANIZTASUNA AKTIBO
GISA

ADMINISTRAZIO
LAGUNKOIA

DONOSTIA
LAGUNKOIA
GEHIAGO
KOMUNIKATZ

Hiri koesionatuagoa

- «Edozein pertsona onartzen eta integratzen duen hiri solidarioa»
- «Ekitatea duena, hirian bizimodu normalizatua izateko orduan».
- «Harremanetarako eta desberdinen arteko harremanetarako gune anitzak oinarritzat hartuta, aniztasuna integratuta».
- «Zainduz eta hauskortasunean arreta berezia jarritz».

Hiriak bizi-itxaropena gero eta handiagoa denez, belaunaldien aniztasuna balio handiko aktibotzat hartzen du eta, ondorioz, belaunaldien arteko harremanak sustatzeko lan egiten du.

- «Giza harremanetan eta belaunaldien arteko harremanetan jarri behar da arreta».
- «Belaunaldien arteko harremanari, belaunaldien arteko bizikidetzari jarri behar zaio arreta».
- «Belaunaldiartekotasun aktiboa komunitatatean».

Hiri zaintzailea: zaintzen duena, zaintzen uzten duena eta ingurunea zaintzen duena.

- «Beharrezkoa da zaintza-eredua birpentsatzea; komunitateko zaintzetarantz eboluzionatzea. Konektatu, zaintzeko».
- «Komunitatean integratutako zaintza unibertsalak bermatuz».
- «Bereziki zaintzaileengan arreta jarritz».
- «Komunitatea, adeitasuna eta elkarrekiko laguntza indartuz».

Hiri honek ekitate digitala lortu nahi du, pertsona guztiek aukera izan dezaten aurrerapen teknologikoek eta gero eta digitalizazio handiagoak eskaintzen dituzten aukerak aprobetxatzeko.

- «Nola minimizatu banku-erakundeen, zerbitzu publikoen edo bestelako zerbitzuen digitalizazioak dituen inpaktu negatiboak?»

Herritartasuna eta guztion onerako ekarpena sustatzen dituen hiria

- «Adineko pertsonak konponbideen parte gara, gure lekua, ezagutza eta bizi-esperientzia erabilia».
- «Funtsezkoa da erantzukizunean eta balioetan heztea».

Administrazio Lagunkoiagoa duen hiria

- «Lagunkoia ekimenaren balioak txertatzea egiteko moduetan eta pertsonen arretan (versus digitalizazioa)».
- «Udal Lagunkoia».

Donostia Lagunkoia ekimenaren balioa azpimarratzea eta horren berri gehiago ematea

- «Garrantzitsua da proiektuan sakontzen jarraitzea eta hari ikusgarritasun handiagoa ematea».
- «Donostia Lagunkoiaren ibilbideari eta aztarnari balioa ematea, bai hiri mailan, bai auzoetan (batzuen eta besteen arteko transferentzia)».

Hausnarketa motz geratu zaigu. Topaketarako aurreikusitako denbora amaitu da, eta ez dugu nahikoa denborarik izan gai bakoitzari buruz sakontzeko.

Hala ere, **titular hauek aukera emango digute hariari tiraka jarraitzeko eta Talde Eragilearen hurrengo urteetako lana bideratzeko.**



Donostia Lagunakoa topaketari amaiera ematen diogu, baina hori baino lehen, pertsona bakoitzaren papera aitortu nahi dugu, hain zuzen ere Talde Eragilea espazio kolektibo bihurtzeko, baita proiektuak helburu argi bat eta konpromiso partekatu bat izateko.

Talde Eragilea partaidetzako eta baterako sorkuntzako espazio bat da, non urte hauetan zehar hainbat eta hainbat pertsonak beren onena eman duten, lekukoa batzuen eta besteen artean modu organiko eta naturalean pasatuz joan den, eta erreleboak ematen joan diren; errelebo horiek beharrezkoak dira oraindik ere Donostia adin guztietarako hiri lagunakoa bihurtzeko asmo partekatu horretan laguntzeko.

Bidaia aurrera jarraitzen du, eta atekak, beti bezala, irekita daude guztiontzat.

Eskerrik asko!

